



# 2023ko Memoria Udaltzaingoa



# 1

## AURKIBIDEA

# 2

## AURKEZPENA

### ***Misioa, ikuspegia eta balioak.***

- 2.1 Ikuspegia. Misioa.
- 2.2 Balioak.

# 3

## ADMINISTRAZIO-POLIZIA

### ***Administrazio-arloko askotariko araudien kontrolari buruzko informazioa eta jarduera.***

- 3.1 Komunikazioa eta informazioa.
- 3.2 Udal-ordenantzak.

# 4

## TRAFIKOA ETA BIDE-SEGURTASUNA

### ***Zaintzea, antolatzea eta arautzea.*** ***Istripu-tasa.***

- 4.1 Trafiko-istripu artatuak.
- 4.2 Trafiko-istripu motak.
- 4.3 Istripuak zaurituekin: arrazoiak.
- 4.4 Harrapatzeen arrazoiak.
- 4.5 Biktimologia istripu-tasan.
- 4.6 Trafikoaren zaintza berezia.
- 4.7 Trafiko-kontrolak.
- 4.8 Ibilgailuen udal-biltegia.
- 4.9 Egindako trafiko-salaketak.

# 5

## POLIZIA JUDIZIALA ETA IKERKETA

### ***Udalerriko delinkuentzia-datuak.*** ***Delitua ikertzea.***

- 5.1 Delituak, salaketak eta ikerketa.
- 5.2 Indarkeria matxista.
- 5.3 Udaltzaingoak ikertu eta atxilotu dituen pertsonak.

# 7

# 6

## HERRITARREN SEGURTASUNA ETA HURBILTASUNA

### ***Babesa eta arreta.*** ***Prebentzio-ekintzak.*** ***Zaintza.***

- 6.1 Protekzioa eta hurbiltasuna.
- 6.2 092-Ko deien kudeaketa.
- 6.3 Prebentzioa eta babesa.



## AURKEZPENA

*Misioa,  
ikuspegia eta  
balioak.*

# AURKEZPENA

2

Dokumentu honek Basauriko Udaltzaingoaren 2023ko jardueraren urteko memoria jasotzen du.

Helburua da erakundearen beraren datu garrantzitsuenak biltzea eta islatzea, bai eta Udaltzaingoak egindako jarduerari buruzkoak ere, eta herritarrek datu horiek zuzenean eskura izatea, modu garden, egiazko eta hurbilean, horiexek baitira Udaltzaingo honen nortasun-ezaugarriak.

Helburua da jarduera presentzial nabarmena lortzea gizarte-, merkataritza- eta lan-esparruan, eta pertsona eta ibilgailu gehiago egotea gure kaleetan. Basaurik udalerri segurua izaten jarraitzen du, hala erakusten dute delinkuentzia-datuek, eta segurtasun publikoko

zerbitzu ona eskaintzen du. Udaltzaingoak ematen duen zerbitzuak, hainbat berregituraketaren ondoren, berma dezake basauriarrek dituzten eskubideak eta askatasunak erabiltzea beren eguneroko zereginetan.

Nabarmentzekoa da plantilla gaztetzeko prozesua eraman dela aurrera eta Udaltzaingoan emakumeen presentzia handitu dela. Horri esker, oreka egokia lortu da beteranoen eta gazteen artean, segurtasun-zerbitzu egokia emateko betiere.

Amaitzeko, balioa eman behar zaio Ertzaintzarekiko eta Babes Zibileko Boluntarioen Elkartearrekiko eguneroko osagarritasunari.





# IKUSPEGIA

2.1

Basauriko Udaltzaingoa funtsezko zerbitzu publikoa da, profesionala, Basauriko herritarrei urteko 365 egunetan 24 orduz arreta ematen diena, Udaltzaingo integrala, baloratua eta herritarren beharretatik hurbil dagoena agenteen profesionaltasunetik eta inplikaziotik abiatuta, eta etengabeko hobekuntzara eta aldaketetara egokitzen bideratua.

Udaltzaingoaren eginkizun nagusia da eskubideen eta askatasunen erabilera librea babestea eta herritarren segurtasuna bermatzea, bizikidetzak baketsua zainduz, eta pertsonak eta haien ondasunak babestuz, Legearen arabera, horrela herritarren bizi-kalitatea eta gizarte-ongizatea hobetuz. Zehazki, honela eramango dugu aurrera:





# MISIOA

## 2.1

1

Herritarrak eta bertako agintariak babestea espazio publikoa zainduz, gatazken bitartekaritza lagunduz eta Legea beteko dela bermatuz.

2

Ezagutzen diren delituak ikertzea, haien eragina ebaluatzea eta inplikaturako pertsonak epailearen esku uztea.

3

Herrigunean trafikoa antolatzea, seinaleztatzea eta zuzentzea, zirkulazio-arauetan ezarritakoaren arabera. Horrez gain, kirol-ekitaldietan eta -probetan laguntzea, dena behar bezala atera dadin, eta parte-hartzaileen eta gainerako herritarren segurtasuna bermatzeko.

4

Udaltzaingoaren eskumenen esparruan, administrazio-poliziaren zereginak egitea ordenantzei, bandoei eta gainerako udal-xedapenei eta -egintzei dagokienez, eta tokiko eskumenen esparruan, ingurumeneko eta ingurunea babesteko araudia betetzen dela zaintzea.

5

Laguntza-polizia, istripuetan, katastrofeetan edo hondamendietan laguntza emanez, gizarte-zerbitzuen sarearekin elkarlanean.





## BALIOAK

## 2.2

Tokiko segurtasun publikoaren erakunde gisa dugun ikuspegia lortzeko eta Basauriko Udaleko Gobernu Taldeak eman digun eginkizuna betetzeko, honako balio hauek ditu arau Udaltzaingoak:

**HURBILTASUNA:** Hurbiltasunetik eta gure zerbitzua ematen diegun pertsonetikiko jarrera irekitik.

**JARRERA ETA ERABAKITASUNA:** Gure konpromisoaren ardatza da herritarrei etengabe eta modu profesionalean erantzutea.

**GARDENTASUNA:** Herritarren zerbitzura gaude, elkar gehiago eta hobeto ezagutu ahal izateko, erabateko konfiantza izan dezaten.

**LANTALDEA:** Lantaldea da zerbitzua osatzen duten pertsonen indarra, helburuak bideratzen dituen lidergo aktiboarekin.

**ETENGABEKO HOBEKUNTZA:** Aldian behin gure zerbitzua ebaluatuko da gure jokabidea berrikusteko eta hobetzeko.



## ADMINISTRAZIO- POLICIA

*Administrazio-arloko  
askotariko araudien  
kontrolari buruzko  
informazioa eta  
jarduera.*

# KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA

3.1

## BARNE-KOMUNIKAZIOA

### ARRAZOIA

### KOPURUA

|                                                                                       |     |
|---------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| Polizia-jarduketari buruzko eguneroko txostenak eta berritasunak                      | 365 |
| Txostenak Udalaren sailei                                                             | 227 |
| Galdutako eta aurkitutako gauzen kudeaketa                                            | 531 |
| Udal-ordenantzen inguruko gorabeherei buruzko txostenak eta salaketak Udalaren sailei | 59  |

### GUZTIRA

1.123

Udaltzaingoak informazioa biltzeko, tratatzeko eta lantzeko lan handia egiten du urtero, eta, ondoren, erakundeak berak kontsumitzen du informazio hori, edo beste erakunde batzuetara bideratzen du: udal-sailetara, Ertzaintzara, epaitegietara...

Herritarrek ikusten ez duten lan hori egiteko, barne-prozedura egokiak erabili behar dira, jasotako kasuistika behar bezala aprobetxatzeko, segurtasun-eskaintzaren baliabideen kudeaketan aplikatu ahal izateko.



# KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA

3.1

## BESTE INSTANTZIA BATZUETARAKO TXOSTENAK

### ARRAZOIA

### KOPURUA

Partikularrei eta aseguru-etxeei txostenak egitea

290

Jakinarazpenak

204

Ararteko

2

Herriaren Defendatzailea

1

### GUZTIRA

497

Basauriko Udaltzaingoak Arartekoaren Abako Proiektuan parte hartzen du urtero, Torturaren Prebentziorako Mekanismo Nazionalaren (MNT) barruan, eta modu gardenean ematen du askatasunaz gabetutako pertsonen atxilotetan eta zaintzan

Udaltzaingoak aurrera eramandako jarduera. Era berean, Arartekoaren Bulegoaren galdetegiari erantzun zaio, Basauriko Udaltzaingoak atxilotutako pertsonen buruz eskatutako datuei dagokienez.



# UDAL-ORDENANTZAK

3.2

## ARRAZOIA

## KOPURUA

|                                        |     |
|----------------------------------------|-----|
| Gorabeherak animaliekin                | 201 |
| Gorabeherak txakurrekin                | 245 |
| Gorabeherak ostalaritzako araudiarekin | 142 |
| Gorabeherak zaratarekin                | 681 |
| Gorabeherak obretako araudiarekin      | 64  |
| Gorabeherak isuriekin                  | 27  |
| Beste arau eta ordenantza batzuk       | 70  |

## GUZTIRA

**1.427**

Udal Ordenantzen esparruko esku-hartzeak ofizioz edo partikularrek eskatuta egiten dira. Udaltzainek lehen esku-hartzea egin eta gertatutakoa egiaztatu ondoren, eskumena



duen Udal-sailari dagokion txostena edo salaketa-akta igortzen zaio, dagokion espedientea tramita dezan. 2023an, % 19,74 jaitsi dira mota horretako esku-hartzeak.



# UDAL-ORDENANTZAK

3.2

## ZARATEN ONDORIOZKO ERAGOZPENEN JATORRIA



KONPARAZIOA 2022. URTEAREKIN

2023 2022


Zaraten ondoriozko eragozpenengatik irekitako gorabeherak %20 gutxitu dira



# UDAL-ORDENANTZAK

## PARTIKULARREN ARTEKO LISKARRAK

3.2



Azken urteetako joerarekin jarraituz, 2023an % 7,20 areagotu dira Udaltzaingoaren esku-hartzeak partikularren arteko liskarren aurrean, eta % 43,90eko igoera metatua izan da 2020arekin alderatuta.

Liskarrak bi pertsonaren edo gehiagoren arteko desadostasunak dira, eta Udaltzaingoaren esku-hartzeak halakoak baretzea lortzen du, garrantzi handiagoko gertakariak eragin gabe, hala nola erasoak, mehatxuak, irainak eta abar.

Elkarbizitzako desadostasunen, gizalege faltarekin loturiko gertakizunen, udal-ordenantzak ez betetzeagatiko erantzukien eta partikularren arteko salerosketen eta merkataritza jardueren ondorio dira arazo gehienak.

Udaltzaingoak bitartekari-lana egiten du, gatazka hasieran konpondu ahal izateko, eta, ondoren, Udaleko Auzo-bitartekaritzako Zerbitzura edo gai horretan eskumena duten beste instantzia batzuetara bidera dezake.




## TRAFIKOA ETA BIDE- SEGURTASUNA

*Zaintzea, antolatzea  
eta arautzea.  
Istripu-tasa.*



# TRAFIKO-ISTRIPU ARTATUAK

4.1



BIKTIMEKIN BIKTIMARIK GABE

ISTRIPUAK 2023

|                          | 2021       | 2022       | 2023       |
|--------------------------|------------|------------|------------|
| BIKTIMEKIN               | 31         | 39         | 48         |
| BIKTIMARIK GABE          | 359        | 355        | 240        |
| <b>ISTRIPUAK GUZTIRA</b> | <b>390</b> | <b>394</b> | <b>288</b> |

Mugikortasunari dagokionez, 2022an baino zifra txikiagoak erregistratu dira 2023an. Hala ere, aipatzekoa da biktimak eragin dituzten istripuak % 20,69 igo direla eta biktimarik gabeko istripuak, berriz, % 38,6 jaitsi dira. Zaurituak eragin dituzten istripuen gorakada hori, aurrerago ikusiko dugun bezala, gidarien portaerari egotz dakioke neurri handi batean. Zaurituak eragiten dituzten istripuen kausak, nagusiki, trafiko-araudiaren arau-hausteak dira.

Urte honetan trafiko-istripuengatik ez da hildakorik izan udalerrian. Ez da ahaztu behar istripu arinen kopurua, "txapa-kolpeak"; izan ere, ezbehar pertsonalik eragin ez arren, jokabide onartezinak erakusten dituzte gidatzean, gehienak deskuiduen edo trafiko-araudia ez betetzearen ondorio direlako. Horrelako istripuek arrisku potentziala sortzen dute, eta pertsona zaurituak, eta hildakoak ere, eragin ditzakete. Azken urteetan joera egonkorrari eutsi zaio.





## TRAFIKO-ISTRIPU MOTAK

4.2


|              | 2021 | 2022 | 2023 |
|--------------|------|------|------|
| TALKAK       | 373  | 385  | 273  |
| HARRAPATZEAK | 12   | 11   | 10   |
| BESTE BATZUK | 6    | 2    | 5    |



# TRAFIKO-ISTRIPU MOTAK

4.2

ZAURITUAK ERAGITEN DITUZTEN ISTRIPUEN BANAKETA DENBORAN



Istripu-kopuruaren asteko banaketak herritarren mugikortasun-ohiturak islatzen ditu. Trafiko-istripu gehienak astelehenetik ostiralera izaten dira, lantokietara joateko eta eguneroko lanak egiteko joan-etorri gehiago egiten direnean.


2023an erregistratutako 10 harrapatzeetatik, gehienak astegunetan izan ziren, eta egun horietan izan ziren, halaber, zaurituak eragin zituzten istripu gehienak.



# TRAFIKO-ISTRIPU MOTAK

# 4.2

KALTE MATERIAL NABARMENAK ETA BIKTIMAK ERAGIN DITUZTEN ISTRIPUAK EREMUKA



Udalerriko istripu-tasaren kalekako banaketari dagokionez, ikus daiteke istripu gehienak Agirre Lehendakaria eta Artunduaga/Zabalandi kaleetan gertatzen direla.


Udalerriko azken bi kale horiei dagokienez, nabarmendu behar da zirkulazio handia izaten dela bertan daudelako Mercabilbao eta Bilbondo merkataritza-gunea.





## ISTRIPUAK ZAURITUEKIN: ARRAZOIAK

4.3



Udalerriko istripu-tasaren arrazoi nagusiak honako hauek dira oraindik ere:


- Arreta galtzea
- Trafiko-arauak ez betetzea
- Alkohola edanda eta/edo drogak hartuta gidatzea





# HARRAPATZEEN ARRAZOIAK

4.4



Aurreko urteetan bezala, udalerrian gertatzen diren harrapatze gehienek erantzulea ez da oinezkoa, pentsa daitekeenetik urrun.

Arrazoi nagusiak dira lehentasun-araudia ez betetzea eta gidariek arreta galtzea.



# BIKTIMOLOGIA ISTRIPU-TASAN

4.5

## HILDAKOAK

|                | 2021     | 2022     | 2023     |
|----------------|----------|----------|----------|
| <b>GUZTIRA</b> | <b>0</b> | <b>1</b> | <b>0</b> |
| EMAKUMEAK      | 0        | 0        | 0        |
| GIZONAK        | 0        | 1        | 0        |

## ZAURITU LARRIAK

|                |          |          |          |
|----------------|----------|----------|----------|
| <b>GUZTIRA</b> | <b>3</b> | <b>3</b> | <b>5</b> |
| EMAKUMEAK      | 0        | 1        | 0        |
| GIZONAK        | 3        | 2        | 5        |

## ZAURITU ARINAK

|                |           |           |           |
|----------------|-----------|-----------|-----------|
| <b>GUZTIRA</b> | <b>42</b> | <b>49</b> | <b>45</b> |
| EMAKUMEAK      | 18        | 18        | 17        |
| GIZONAK        | 24        | 31        | 28        |

## GIDARIA

|                 | 2021 | 2022 | 2023 |
|-----------------|------|------|------|
| HILDAKOAK       | 0    | 0    | 0    |
| ZAURITU LARRIAK | 2    | 1    | 1    |
| ZAURITU ARINAK  | 19   | 27   | 27   |
| ZAURIRIK GABE   | 36   | 272  | 245  |

## BIDAIA

|                 |    |    |    |
|-----------------|----|----|----|
| HILDAKOAK       | 0  | 0  | 0  |
| ZAURITU LARRIAK | 0  | 0  | 0  |
| ZAURITU ARINAK  | 10 | 11 | 10 |
| ZAURIRIK GABE   | 11 | 29 | 22 |

## OINEZKOA

|                 |    |   |   |
|-----------------|----|---|---|
| HILDAKOAK       | 0  | 1 | 0 |
| ZAURITU LARRIAK | 1  | 2 | 4 |
| ZAURITU ARINAK  | 13 | 9 | 9 |
| ZAURIRIK GABE   | 0  | 0 | 2 |



# TRAFIKOAREN ZAINZA BEREZIA

4.6

|                       | 2021         | 2022         | 2023         |
|-----------------------|--------------|--------------|--------------|
| Orokorra              | 543          | 653          | 681          |
| Ikastetxeak           | 350          | 336          | 299          |
| Manifestazioak        | 24           | 24           | 21           |
| Galtzadako anomaliak  | 374          | 424          | 302          |
| Ibilgailuei laguntzea | 69           | 65           | 81           |
| <b>GUZTIRA</b>        | <b>1.360</b> | <b>1.502</b> | <b>1.384</b> |

Errepideetako istripuen tasak hobetzeko eta bide-segurtasunaren pertzepzio handiagoa sortzeko, zirkulazioaren zaintzaren eta kontrolaren intentsitateari eutsi zaio, eta arreta berezia jarri da ikastetxeetako eta kasuistika zehatzak dituzten erregulazio orokorreko eremuetako zaintzetan.

Era berean, trafikoa arautzen lagundu da udalerrian egindako manifestazioetan.

Ez da ahaztu behar agente zibikoek eskola-eremuetan egindako trafikoaren erregulazioa, eskoletan 382 trafiko-erregulazio egin baitituzte lanean aritu diren hilabeteetan.





# TRAFIKO-KONTROLAK

4.7

## IBILGAILUEN GAINEKO KONTROLAK

|                                                             | 2021       | 2022       | 2023       |
|-------------------------------------------------------------|------------|------------|------------|
| Trafikoko kontrol orokorra                                  | 63         | 131        | 92         |
| IAT kanpaina - gabezia tekn.                                | 15         | 8          | 9          |
| Segurtasun-uhalaren eta haurrak lotzeko sistemaren kanpaina | 8          | 5          | 6          |
| Alkohola / drogak                                           | 43         | 80         | 82         |
| Abiadura                                                    | 57         | 143        | 125        |
| Mugikorra eta arreta galtzea                                | 27         | 25         | 25         |
| <b>GUZTIRA KUDEATUAK</b>                                    | <b>213</b> | <b>392</b> | <b>339</b> |



# IBILGAILUEN UDAL-BILTEGIA

4.8

## UDAL-GARABIAK EGINDAKO ZERBITZUAK

|                    | 2019       | 2020       | 2021       | 2022       | 2023       |
|--------------------|------------|------------|------------|------------|------------|
| Biltegira eramatea | 507        | 316        | 320        | 406        | 448        |
| Geldiaraztea       | 59         | 58         | 13         | 36         | 66         |
| Lekuz aldatzea     | 33         | 18         | 3          | 7          | 16         |
| <b>GUZTIRA</b>     | <b>599</b> | <b>392</b> | <b>336</b> | <b>449</b> | <b>530</b> |

Udal Garabi Zerbitzuak Udaltzaingolari laguntza ematen dio ibilgailu arau-hausleak bide publikotik kentzeko, eta, gainera, laguntza ematen dio seinaleak jartzen, trafiko-istripuetan eta kultura- eta kirol-ekitaldietan.



# IBILGAILUEN UDAL-BILTEGIA

4.8

ITZB\*-RA ERAMANDAKO IBILGAILU ABANDONATUAK



IBILGAILU ABANDONATUAK

Ibilgailuen abandonu-espedienteak titularrek bide publikoan ibilgailuak nahita uzten dituztenean hasten dira batez ere. Ibilgailu horiek herritarren salaketari eta agenteen zaintzari esker aurkitzen dira.

Gainerako ibilgailuak, berriz, hondakin gisa tratatzeko asmoz ibilgailua lagatzeko borondatezko baimenetatik datoz, edo udal-biltegian utzita geratzen diren eta jabeek berreskuratzen ez dituzten ibilgailuenak izaten dira. Prozesua luzea da, eta hainbat administrazio-jarduera behar ditu, eta baliteke detektatu diren unetik hilabeteak atzeratzea.


(\*) Ibilgailuen Tratamendurako Zentro Baimendua (desguazea). Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak zentro baimendu horien zerrenda argitaratzen du.



# EGINDAKO TRAFIKO-SALAKETAK

4.9

TRAFIKO SALAKETAK ETA PUNTUAK KENTZEA



SALAKETEN KOPURUA

**2.642**

**SALATUTAKO ARAU-HUSTEAK**

2.642 gidari salatu dira trafikoarekin lotutako gertakariengatik, 2022an baino % 8 gutxiago.

Basauriko udaltzainek eguneroko patruila-lanetan salatutako 2.642 arau-hauste horietatik 445, hau da, % 17 gidabaimeneko puntuak galtzea dakarten salaketak dira.

Horri gehitu behar zaizkio epai judizial irmoaren bidez artxibatutako administrazio-salaketak, bide-segurtasunaren aurkako hainbat deliturengatik. Guztira 62 salaketa izan dira 2023an.





# EGINDAKO TRAFIKO-SALAKETAK

4.9

ARAU-HAUSTE GEHIEN EGIN DIREN LEKUAK

## KALEA

## TRAFIKO-SALAKETEN KOPURUA

## GUZTIKOAREN %

|                     |     |      |
|---------------------|-----|------|
| ETXERRE KAMINOA     | 195 | 7,3  |
| AGIRRE LEHENDAKARIA | 188 | 7,14 |
| KAREAGA GOIKOA      | 231 | 8,7  |
| NAGUSIA             | 136 | 5,14 |
| ARTUNDUAGA          | 101 | 3,8  |
| URBIA               | 61  | 2,3  |
| KARMELO TORRE       | 53  | 2    |
| CERVANTES           | 92  | 3,5  |



# EGINDAKO TRAFIKO-SALAKETAK

4.9

## TRAFIKO-SALAKETEN TIPOLIGIA

|                                       | 2022         | 2023         | ALDAKUNTZAREN<br>% |
|---------------------------------------|--------------|--------------|--------------------|
| Gelditzea eta aparkatzea              | 1.387        | 1.147        | -17                |
| Iat eta gabezia teknikoak             | 684          | 487          | -28                |
| Abiadura                              | 289          | 351          | +21                |
| Asegurua                              | 124          | 137          | +13                |
| Arreta galtzea                        | 88           | 71           | -17                |
| Alkohola eta drogak                   | 41           | 131          | +219               |
| Segurtasun-elementuak                 | 40           | 48           | +20                |
| Gidariaren dokumentazioa              | 39           | 33           | -15                |
| Zirkulazioko beste arau-hauste batzuk | 179          | 237          | +70                |
| <b>GUZTIRA</b>                        | <b>2.871</b> | <b>2.642</b> | <b>-7,9</b>        |

Arau-hausteen jatorriaren arrazoi nagusia aparkatzeekin dago lotuta; izan ere, murriztu egin diren arren, arau-hauste guztien % 43,5 dira oraindik ere, eta horiek dira herritarrek Udaltzaingoari gehien eskatzen dizkieten errekerimenduak.

Azpimarratzekoa da arau-hauste asko, batez ere dokumentazioarekin lotutakoak, bai gidariarenak, bai ibilgailuenak, egiten diren errepide-kontrolen bidez detektatzen direla nagusiki.

Nabarmendu behar da, halaber, alkoholaren eta drogen eraginpean gidatzearekin lotutako arau-haustek hirukoiztu egin direla Basauriko udaltzainek gauez egiten dituzten kontrolei esker.



# POLIZIA JUDIZIALA ETA IKERKETA

*Udalerriko  
delinkuentzia-datuak.  
Delitua ikertzea.*

# DELITUAK, SALAKETAK ETA IKERKETA

5.1

ERTZAINTZAK ETA UDALTZAINGOAK ANTZEMANDAKO ARAU-HAUSTE  
PENALAK, MOTEN ARABERA, UDALERRI HONETAN: BASAURI - 2022 / 2023

| ARAU-HAUSTE MOTA                                                                 | 2022  | ERTZAINTZAK | Δ 22 23 | 2022 | UDALTZAINGOAK | Δ 22 23 | 2022  | EUSKAL POLIZIA | Δ 22 23 |
|----------------------------------------------------------------------------------|-------|-------------|---------|------|---------------|---------|-------|----------------|---------|
|                                                                                  | 2023  |             |         | 2023 |               |         | 2023  |                |         |
| <b>Giza hilketa eta haren formak</b>                                             | 1     | 1           | -       | -    | -             | -       | 1     | 1              | -       |
| Dolozko giza hilketa / erailketa burutua (EB)                                    | -     | -           | -       | -    | -             | -       | -     | -              | -       |
| Dolozko giza hilketa / erailketaren saiakuntza (EB)                              | 1     | -           | -100,00 | -    | -             | -       | 1     | -              | -100,00 |
| Giza hilketaren eta haren formen beste arau-hauste batzuk                        | -     | 1           | -       | -    | -             | -       | -     | 1              | -       |
| <b>Lesioak</b>                                                                   | 118   | 144         | 22,03   | 25   | 39            | 56,00   | 143   | 183            | 27,97   |
| Tratu txarrak familia-esparruan                                                  | 27    | 46          | 70,37   | 12   | 7             | -41,67  | 39    | 53             | 35,90   |
| Lesioak                                                                          | 80    | 85          | 6,25    | 10   | 28            | 180,00  | 90    | 113            | 25,56   |
| Lesioen beste arau-hauste batzuk                                                 | 11    | 13          | 18,18   | 3    | 4             | 33,33   | 14    | 17             | 21,43   |
| <b>Tortura eta osotasunaren aurkakoak</b>                                        | 43    | 52          | 20,93   | 5    | 12            | 140,00  | 48    | 64             | 33,33   |
| Ohiko tratu txarrak familia-esparruan                                            | 39    | 44          | 12,82   | -    | 8             | -       | 39    | 52             | 33,33   |
| Tortura eta osotasunaren aurkako beste arau-hauste batzuk                        | 4     | 8           | 100,00  | 5    | 4             | -20,00  | 9     | 12             | 33,33   |
| <b>Sexu-askatasunaren aurkakoak (EB) (2)</b>                                     | 4     | 16          | 300,00  | 1    | 3             | 200,00  | 5     | 19             | 280,00  |
| Sexu-erasoa                                                                      | 2     | 16          | 700,00  | -    | 2             | -       | 2     | 18             | 800,00  |
| Sexu-askatasunaren aurkako beste arau-hauste batzuk                              | 2     | -           | -100,00 | 1    | 1             | -       | 3     | 1              | -66,67  |
| <b>Ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkakoak</b>                        | 1.114 | 1.056       | -5,21   | 235  | 318           | 35,32   | 1.349 | 1.374          | 1,85    |
| Ebasketa (EB)                                                                    | 600   | 589         | -1,83   | 83   | 105           | 26,51   | 683   | 694            | 1,61    |
| Gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta                                     | 123   | 137         | 11,38   | 27   | 44            | 62,96   | 150   | 181            | 20,67   |
| Gauzetan indarra erabiliz etxebizitzan egindako lapurreta (EB) (1)               | 42    | 35          | -16,67  | 1    | 2             | 100,00  | 43    | 37             | -13,95  |
| Gauzetan indarra erabiliz etxean egindako lapurreta                              | 26    | 25          | -3,85   | -    | 2             | -       | 26    | 27             | 3,85    |
| Indarra erabiliz etxebizitzaren beste gela/eranskin batzuetan egindako lapurreta | 16    | 10          | -37,50  | 1    | -             | -100,00 | 17    | 10             | -41,18  |
| Indarra erabiliz enpresetan egindako lapurreta                                   | 7     | 21          | 200,00  | 2    | 3             | 50,00   | 9     | 24             | 166,67  |
| Indarra erabiliz saltokietan eta beste espazio ibi batzuetan egindako lapurreta  | 31    | 19          | -38,71  | 3    | 10            | 233,33  | 34    | 29             | -14,71  |
| Gauzetan indarra erabiliz beste leku batzuetan egindako lapurreta                | 43    | 62          | 44,19   | 21   | 29            | 38,10   | 64    | 91             | 42,19   |
| Indarkeria edo larderia erabiliz egindako lapurreta (EB)                         | 37    | 28          | -24,32  | 13   | 12            | -7,69   | 50    | 40             | -20,00  |
| Kalteak                                                                          | 158   | 147         | -6,96   | 85   | 136           | 60,00   | 243   | 283            | 16,46   |
| Ibilgailu motordunak ostea (EB)                                                  | 8     | 17          | 112,50  | 6    | 4             | -33,33  | 14    | 21             | 50,00   |
| Maula                                                                            | 137   | 102         | -25,55  | 17   | 11            | -35,29  | 154   | 113            | -26,62  |
| Ondarearen aurkako beste arau-hauste batzuk                                      | 51    | 36          | -29,41  | 4    | 6             | 50,00   | 55    | 42             | -23,64  |
| <b>Segurtasun kolektiboaren aurkakoak</b>                                        | 44    | 34          | -22,73  | 55   | 58            | 5,45    | 99    | 92             | -7,07   |
| Osasun publikoa: Droga-trafikoa (EB)                                             | 9     | 6           | -33,33  | 6    | 1             | -83,33  | 15    | 7              | -53,33  |
| Alkohol, droga eta abarren eraginpean gidatzea                                   | 16    | 16          | -       | 34   | 38            | 11,76   | 50    | 54             | 8,00    |
| Segurtasun kolektiboaren aurkako beste arau-hauste batzuk                        | 19    | 12          | -36,84  | 15   | 19            | 26,67   | 34    | 31             | -8,82   |
| <b>Beste arau-hauste penal batzuk</b>                                            | 153   | 174         | 13,73   | 30   | 13            | -56,67  | 183   | 187            | 2,19    |
| <b>ARAU-HAUSTE PRESENTZIALAK GUZTIRA</b>                                         | 1.477 | 1.477       | -       | 351  | 443           | 26,21   | 1.828 | 1.920          | 5,03    |
| <b>1.000 BIZTANLEKO TASA</b>                                                     | 36,63 | 36,55       | -0,22   | 8,70 | 10,96         | 26,21   | 45,33 | 47,51          | 4,86    |
| <b>Delitu informatikoak</b>                                                      | 401   | 515         | 28,43   | -    | 13            | -       | 401   | 528            | 31,67   |
| Maula informatikoak                                                              | 348   | 472         | 35,63   | -    | 10            | -       | 348   | 482            | 38,51   |
| Ziberfalsifikazioak                                                              | 29    | 7           | -75,86  | -    | -             | -       | 29    | 7              | -75,86  |
| Zibermehatxak eta ziberderiorrigortzeak                                          | 19    | 11          | -42,11  | -    | 1             | -       | 19    | 12             | -36,84  |
| Sekretuak argitara eta jakitera ematea                                           | 3     | 7           | 133,33  | -    | -             | -       | 3     | 7              | 133,33  |
| Sexu-ziberdelituak                                                               | 1     | 1           | -       | -    | -             | -       | 1     | 1              | -       |
| Zibereraso informatikoak                                                         | 1     | 2           | 100,00  | -    | -             | -       | 1     | 2              | 100,00  |
| Beste delitu informatiko batzuk                                                  | -     | 15          | -       | -    | 2             | -       | -     | 17             | -       |
| <b>ZIBERDELINKUENTZIA GUZTIRA</b>                                                | 401   | 515         | 28,43   | -    | 13            | -       | 401   | 528            | 31,67   |
| <b>1.000 BIZTANLEKO TASA</b>                                                     | 9,94  | 12,74       | 28,43   | -    | 0,32          | -       | 9,94  | 13,07          | 3,13    |
| <b>ARAU-HAUSTE PENALAK GUZTIRA</b>                                               | 1.878 | 1.992       | 6,07    | 351  | 456           | 29,91   | 2.229 | 2.448          | 9,83    |
| <b>1.000 BIZTANLEKO TASA</b>                                                     | 46,57 | 49,29       | 6,07    | 8,70 | 11,28         | 29,91   | 55,28 | 60,57          | 9,53    |

EUSKAL POLIZIAREN 2023 MEMORIAREN DATUAK




2023KO MEMORIA UDALTZAINGOA



# DELITUAK, SALAKETAK ETA IKERKETA

# 5.1

## DELITUEN NAGUSITASUNA



←..... 60 DELITUAK

←..... 1.000 BIZTANLEAK

Euskal Poliziaren 2023ko Urteko Memoriatik ateratako delitu-datuetatik, Ertzaintzak eta Basauriko Udaltzaingoak 2023an erregistratutako delituak aurkeztuko dira ondoren.

1.000 biztanleko delitu-tasa 60.57koa izan da, 2022an baino % 9,57 handiagoa.


Izandako igoerak gorabehera, dagokion azterketa egin behar da, eta, nolanahi ere, udalerrri segurutzat jotzen dute Basauri. EAEkoa baino delinkuentzia-tasa txikiagoa du (62,27 delitu 1.000 biztanleko), eta Bizkaikoa baino txikiagoa (64,97 delitu 1.000 biztanleko).



# DELITUAK, SALAKETAK ETA IKERKETA

# 5.1

## DELITUEN NAGUSITASUNA



Ulertu behar da batez ere ebasketen, kalteen eta iruzurren goranzko joeragatik izan dela gehikuntza hori, eta garrantzi handiagoko gainerako delituak kopuru onargarrietan mantendu dira Basauri bezalako herri seguru batentzat.

Goranzko joera hori azken urteetan egiaztatu den prozesu bat da, garai batean salatzen ez ziren gertakariengatik laidotuak izan direla salatzea erabaki duten pertsonen kopuruak gora egin duelako. Bestalde, teknologia berrien erabilerak gora egin duenez, beste eremu bat eskaini zaie ziberdelituei edo delitu informatikoei, eta ikusi da gora egin dutela halako arau-hauste penalek.

Etxebizitzetako lapurretak % 0,4 izan dira, eta indarkeriaz egindako lapurretak, berriz, Basauriko udaltzaingoan salatutako delitu guztien % 2,6.

Sexu-askatasunaren aurkako delituengatik salaketak anekdotikoak dira, guztizkoaren % 0,6.

Hala ere, indarkeria matxistak azaleratzen jarraitzen du, eta biktimak izan daitezkeen etengabeko zaintza eta prebentzioa eskatzen dute datuek. 2023an, Basauriko udaltzaingoak 13 atestatu ireki ditu indarkeria matxistarekin lotutako legez kontrako jokabideengatik. Datu hori 2022koaren antzekoa da, eta polizia horrek jasotako salaketen % 2,8 da.




# INDARKERIA MATXISTA


5.2

## INDARKERIA MATXISTAREN EBOLUZIOA

Puntu honetan, nabarmentzekoa da Basauriko udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko koordinazio eraginkorra, EBA plataformaren bidez (Etxekoen eta emakumeen BABesa), bai eta Udaleko gizarte-zerbitzuekin ere, indarkeria matxistaren edozein zantzuren aurrean erantzun azkarra ematea ahalbidetu baitu. Udaltzaingoak genero-indarkeriari buruzko prestakuntza espezializatua eta beste erakunde batzuekiko lankidetzak funtsezkoak izan dira kasu horiei aurrea hartzeko eta aurre egiteko.



EUSKAL POLIZIAREN DATU BATERATUAK BASAURIN



BASAURIKO UDALTZAINGOAK ERRUZZATUAK  
INDARKERIA MATXISTA KASUETAN



# UDALTZAINGOAK IKERTU ETA ATXILOTU DITUEN PERTSONAK

5.3

ATXILOTUAK IKERTUAK

## Giza hilketa eta haren formak

Dolozko giza hilketa / erailketa (EB)

Dolozko giza hilketa / erailketa saialdia (EB)

Giza hilketaren eta haren formen bestelako arau-haustek

## Lesioak

Tratu txarrak familian

Lesioak

Lesioen bestelako arau-haustek

## Tortura eta integritatearen aurkakoak

Ohiko tratu txarrak familian

Tortura eta integritatearen aurkako bestelako arau-haustek

## Sexu-askatasunaren aurkakoak (EB)

Sexu-erasoak

Sexu-askatasunaren aurkako bestelako arau-haustek

## Ondare eta ordena sozioekonomikoaren aurkakoak

Ebasketa

Lapurreta indarkeriaz gauzetan

Lapurreta indarkeriaz gauzetan etxean (EB) (I)

Lapurreta indarkeriaz gauzetan etxebizitzan

Lapurreta indarkeriaz gauzetan beste gela batzuetan/eranskinetan

Lapurreta indarkeriaz enpresetan

Lapurreta indarkeriaz dendetan eta bestelako esp. Itxietan

Lapurreta indarkeriaz gauzetan beste leku batzuetan

Lapurreta indarkeriaz edo lardieriaz (EB)

Kalteak

Ibilgailu motordunak ostea (EB)

## Segurtasun kolektiboaren aurkakoak

Osasun publikoa: droga-trafikoa (EB)

Alkohol eta bestelako drogen eraginpean gidatzea

Segurtasun kolektiboaren aurkako bestelako arau-haustek

## Ordena publikoaren aurkakoak

Terrorismoa ondasun materialen aurka

Terrorismoa pertsonen aurka

Bestelako terrorismo ekintzak

Bestelako arau-haustek ordena publikoaren aurka

## Beste arau-hauste penal batzuk

Beste arau-hauste penal batzuk

Errequisitoriak

GUZTIRA

.....


45

138



# UDALTZAINGOAK IKERTU ETA ATXILOTU DITUEN PERTSONAK

5.3



Basauriko Udaltzaingoa gero eta pertsona gehiago atxilotu eta ikertu ditu, ebatzi diren delitu-egitateengatik.




# HERRITARREN SEGURTASUNA ETA HURBILTASUNA

*Babesa eta arreta.  
Prebentzio-ekintzak.  
Zaintza.*


# PROTEKZIOA ETA HURBILTASUNA

6.1

## KUDEATUTAKO GORABEHERAK ETA ESKU-HARTZEAK



ESKU-HARTZEAK



GORABEHERAK ETA ESKU-HARTZEAK

2023an 18.626 esku hartze edo gorabehera erregistratu dira, herritarrek eskatuta edo Udaltzaingoaren beraren ekimenez. Erregistro horietako bakoitzean, litekeena da Basauriko Udaltzaingoak hainbat jarduketa egin behar izatea.






# 092-KO DEIEN KUDEAKETA

092KO DEIAK

6.2





# PREBENTZIOA ETA BABESA

6.3

## PREBENTZIO- ETA BABES-LANAK

|                                                            | 2021         | 2022         | 2023         |
|------------------------------------------------------------|--------------|--------------|--------------|
| Lapurreten prebentzioa saltokietan                         | 419          | 548          | 339          |
| Lapurreten prebentzioa banketxeetan                        | 40           | 54           | 51           |
| Delituen prebentzioa ostalaritzan                          | 1.049        | 397          | 345          |
| Lapurreten prebentzioa enpresetan eta industrialdeetan     | 1.105        | 1.137        | 708          |
| Drogak saldu, eduki eta kontsumitzearen prebentzioa        | 306          | 292          | 167          |
| “Besarkada solidarioen” prebentzioa (lapurretak adinekoei) | 202          | 296          | 183          |
| Genero-indarkeriaren biktimen babesa                       | 115          | 61           | 131          |
| Indarkeriazko lapurreten prebentzioa                       | -            | 548          | 364          |
| <b>GUZTIRA</b>                                             | <b>3.236</b> | <b>3.333</b> | <b>2.308</b> |





# PREBENTZIOA ETA BABESA

6.3

## HERRITARREN BABESA

|                                                               | 2021         | 2022         | 2023         |
|---------------------------------------------------------------|--------------|--------------|--------------|
| Pertsona susmagarrien identifikazioa                          | 132          | 187          | 147          |
| Prebentzio-ekintzak: oinezko patruilak                        | 632          | 622          | 551          |
| Prebentzio-ekintzak: patruila mistoak<br>Ibilgailuz eta oinez | 703          | 867          | 678          |
| Babes- eta segurtasun-kontrolak                               | 531          | 229          | 129          |
| Alarimei erantzutea                                           | 177          | 242          | 166          |
| <b>GUZTIRA</b>                                                | <b>2.175</b> | <b>2.147</b> | <b>1.671</b> |





KONTAKTATU

 **092 - 944666341**  **udaltzaingoa@basauri.eus**  **@BasauriPolizia**

